



EUSKARA PLANA

URRUÑA EUSKARAREN
BIZIBERRITZEAREN ALDE
ENGAIATZEN DA

2024 - 2028



AITZIN SOLASA

Euskara, milurtekoa bezainbat gaur egungo hizkuntza izanki, euskarak mendeak zeharkatu ditu etengabe egokituz. Gaur egun, munduan hitz egiten diren beste 6000 hizkuntzak bezala, gizakien arteko komunikaziorako baliatzen den hizkuntza modernoa da, jakintza hedatzaile eta kultur aniztasunaren osagai. Haatik, luzaz apaldua izan den heinean, desagertzeko lanjerrean da eta ez da aski erabilia. UNESCOren *Arriskuan dauden munduko hizkuntzen atlasak* lanjerrean diren 2500 hizkuntzen artean kokatzen du. Denen erronka da, beraz, euskararen biziberritzea.

Euskara, ez da apaingarri bat; babestu behar den ondare kultural bat baino gehiago da; zerbait gehiago ekarri behar die Urruñarrei. Lurraldeko herritar anitzentzat, komunikatzeko tresna da, loturak sortzen dituena, integraziorako bidea irekitzen duena lurraldean sustraitzen dituena. Jatorriz Urruñan sortu direnentzako eta berriki etorri direnentzako, euskara ikasten dutenentzako, hasiberrientzako, euskaldun zaharrentzako edo kuriosentzako elkarbizitzarako giltza da.

Azken hamarkadetan gainbehera ezagutu ondoren, nagusiki familia transmisioaren hausturagatik, egun, botere publikoen eta jendarte zibilaren ekintza bateratuari esker, euskararen biziberritze prozesua berriz abiatu da, batez ere, belaunaldi gazteetan. VII. inkesta soziolinguistikoaren emaitzek (Euskararen Erakunde Publikoak eta Eusko Jaurlaritzak, 2021) agertarazten dute, lurraldeko biztanleen % 20a euskalduna dela eta, hiztun zaharren desagertzea eta euskaldunak ez diren herritar berrien etorrera konpentsatzeko nahikoa ez bada ere, galera abiadura apalagoan egiten dela bereziki belaunaldi gazteetan.

Azken berrogeita hamar urteetan egin indarrek euskararen aldeko neurri eraginkorrak hartu daitezkeela, eta hizkuntza bizirik mantentzeko eta garatzeko, epe luzeko lana eta denen engaiamendu handiagoa behar-beharrezkoak direla erakutsi dute.

Agintaldi proiektuaren engaiamendu azkarretariko bat da euskararen biziberritze prozesuan eragitea. Horregatik, hizkuntza politika publiko egokitu bat plantan ezarri nahi dugu, langile, hautetsi eta herriko eragileekin kontzertazioan eraikia eta euskara plan integral baten itxura hartuko duena.

11.000 biztanlerekin, Urruña ez da gehiago herrixka bat. Herriko Etxeak hurbileko zerbitzuak eskaintzen ditu, haren jarduerak, ekintzak, herritarren eguneroko bizian duten eragina, zilegitze boterea, eragile publiko, pribatu edo elkarteengan izan dezaketen eredu-garritasuna kontuan hartuz, euskara sustatzea helburu duen hizkuntza politika eraginkor bat plantan ezartzeko eragilerik egokiena da dudarik gabe.

Herriko Etxe gisa, gure ardura ere bada euskara biziaraztea, eta eremu publikoan dagokion lekua eskaintzea, ikusgarriagoa, ikasiagoa, erabiliagoa izan dadin.

TESTUINGURUA

KOADRO JURIDIKOA ETA HIZKUNTZA POLITIKA PARTEKATUA



Konstituzioaren 75-1 artikulua onartu zenetik, eskualdeko hizkuntzak Frantziako konstituzio-ondarearen parte dira. Eskualdeko hizkuntzak oro har, eta euskara bereziki, konstituzioan sartzeak botere publikoei arduraz aritzea eskatzen die eta 2021eko maiatzaren 21ean bozkatu *eskualde hizkuntzen ondare babeserako legean* zehazten du.

Horrez gain, NOTRe legearen 104. artikulua (Lurralde Elkargoaren Kode Orokorreko L. 1111-4) “eskualdeko hizkuntzen sustapena” eskumena ofizial egin du, Herri, Departamendu, Eskualde eta araudi bereziko elkargoaren arteko eskumen partekatua dela zehaztuz.

Gure lurraldean, erakunde publikoek bi mailako ekintza abia dezakete:

- beren hizkuntza politika propioa aktibatuz: euskara erakundearen eskumen eta politika guzietan sartuko da. Izan ere, hizkuntza politika zeharkako politika da, eta dagozkion ekintzak sektorekako politika bakoitzaren barnean zehazten diren aitzinkontuen bitartez diruztatuko dira;
- EEPren barnean estrategia eta dispositibo partekatuak plantan emanez. Hizkuntza politikaren eskumena eskumen partekatua denez, ekimenen koherentzia eta eraginkortasuna bermatzea beharrezkoa da.

Euskara jalgi hadi plazara, l'euskara rayonne sur nos places,
Elkargoko Hizkuntza politika proiektua 2018/06/23



*“Euskal elkargoak ofizialki aitortzen ditu euskara eta gaskoi-okzitandarra bere lurraldeko hizkuntza bezala, frantsesaren ondoan”
2018/06/23ko deliberoa*

LURRALDEKO ERRONKEKIN BAT EGITEN DUEN HIZKUNTZA POLITIKA



Elkargoaren hizkuntza politikaren helburuak

- **Biztanleendako zerbitzuetan eskaintza elebiduna egituratzea:** Elkargoak berak, herriek eta herri blokea osatzen duten beste eragileek proposatu biztanleendako zerbitzuetan eskaintza elebiduna egituratzea, bizitza eremu guzietan, nahi duten biztanleek euskara erabili eta transmititu ahal izan dezaten, egunerokoan, hurbileko testuinguruan.
- **Biztanleen informatzea eta sentsibilizatzea:** Elkargoak lurraldeko biztanleei zuzendu informazio eta sentsibilizazio ekintza jarraikia eramanen du, herritarrak zerbitzu horien baliatzera bultzatzeko eta, oro har, euskararen aldeko jarrera eta dinamikak bultzatzeko, bizitzako eremu bakoitzean

*Euskara jalgi hadi plazara, l'euskara rayonne sur nos places,
Elkargoaren hizkuntza politika proiektua 2018/06/23*

Euskararen Erakunde Publikoaren hizkuntza politikaren helburuak

Helburu bat:
hiztun osoak

Lehentasun bat:
haur eta gazteak

“Hiztun osoa euskaraz komunikatzeko gogoia, edozein egoeratan euskaraz aritzeko trebetasuna eta euskara benetan erabiltzea erabakiko duen pertsona da”

EEPren hizkuntza politika proiektuaren zati bat

LURRALDEKO ERRONKEKIN BAT EGITEN DUEN HIZKUNTZA POLITIKA



Herriko euskara zerbitzuaren sortzeko 2022-2025 partaidetza hitzarmena, 22/03/29an izenpetua

- Herritarrenganako zerbitzuetan eskaintza elebiduna garatzea;
- Biztanleei begira, euskararen inguruko sentsibilizazio ekintzak sortzea;
- Euskal Hirigune Elkargoak garatuko lituzkeen jarduera eta egitasmoetan parte hartzea;

Erabaki egituratzaileak

- Herriko hizkuntza politika plantan ezartzeko, delibero bidezko urrats egituratzaileak eman ditu:
- *Urruñako tokiko elkargoaren Gutuna eskualdeko hizkuntza sustatzeko* 2021/11/21
- Euskara zerbitzua eta elkargoaren laguntza dispositiboan sartzea, 2022/03/29
- Euskara zerbitzua 2022/11/01
- *Hizkuntzen antolaketa Urruñako herriko etxearen komunikazio euskarrietan* deitu xarta 2023/06/26


Urruñako herriko etxeak, onartu 2020-2026 agintaldirako egitasmoan herriko hizkuntza politika definitu eta plantan ezartzeko xedea agertzen da. Helburutzat hartu ditu:

- Euskararen erabilera herriko etxearen funtzionamenduan hedatzea.
- Herriko etxeko komunikazioa eta informazioa euskaraz ere bermatzea, izan publiko zabalarentzat edota zerbitzu batzuen publiko berezientzat (GEUZ, Gazteentzako informazio zerbitzua...).
- Eragile pribatuak, eta bereziki hizkuntzaren eta kulturaren alde, transmisioan, sustapenean eta zabalkundeetan lan egiten duten elkarteak sustengatzea, baita euskararen erabilera bultzatzen duten mugaz gaindiko ekimen guztiak ere.
- Herri mailako hizkuntza estrategia plantan ezarriko duen euskara zerbitzua sortzea.

AURKIBIDEA

- 1** Euskara Urruñan 2023an
- 2** Euskara planaren printzipioak, helburuak eta ardatzak
- 3** Ekintza plana
- 4** Ondorioak





1.
**EUSKARA
URRUÑA
2023**



EUSKARAREN GILTZA- DATAK URRUÑAN

1978

Haziaren sorrera

1988

Berttoliren sorrera

1990

San Frantses Xabier eskolan
sail elebidunaren irekitzea

1996

Iparra-Hegoaren
lehen edizioa

1998

Ikastolaren eraikuntza

1998-
1999

Karrika izen
elebidunak

2001

San Frantses Xabierreko haur
hezkuntzan murgiltzea

2008-
2010

Eskola Publikoetan sail
elebidunen irekitzea

2011

Kimua haurtzaindegiaren
labelizazioa
C labela

2013

Agenda 21eko
euskarazko bertsioa

2014

Kabalkada

2016

- Ohantzea Ttiki haurtzaindegiaren labelizazioa C labela
- Bertsolari Ttiki

2018

- Hiri barneko haur hezkuntzan murgiltzea
- Euskaraldia

2020

Urruñako
Antzerki Eskolaren
sorrera

2021

Eskualdeko
hizkuntzen tokiko
xartaren izenpetzea

2022

- Euskara zerbitzuaren sorrera
- Loraldiberria
- Langileen formakuntzak

2023

- Euskara Plana
- Euskararen Urtaroa
- Gau Beltza

METODOLOGIA



Kontzertazioan oinarritzen den diagnostikoa

Planak euskara zerbitzuaren ondoko 5 urteetarako eskuhartze esparrua finkatzen du, obratuko diren ardatz eta ekintza estrategikoak definituz. Helburua da, euskara ikusgarriagoa egitea eta erabilera sozialerako espazioak irabaztea. Urruñako "Euskara Planak" ikusmolde osoagoa ukan dezan, herriko eragile guziekin ko-eraikia izatea nahi izan da, kontzertazioaren bidez.

Barne diagnostikoa zerbitzuekin

Euskara garatzaileak Herriko etxearen barne diagnostiko bat bideratu du 2022-2023ko negu-udaberri partean. Horretarako zerbitzuen itzulia egin du, bakoitzaren antolaketa, misioak, eta hizkuntza praktikak aztertu ditu.

Diagnostikoaren osatzeko, Euskal Elkargoko Hizkuntza politiken zerbitzuak sortu tresnak baliatu ditu, eta AEKren bidez, langileak mailakatu ditu. Horrez gain, zerbitzuetatik igorazi zaizkion proposamenak, ideiak bildu ditu.

Tailer parte hartzaileak

Plazara elkarteak animatu bi tailer parte hartzaileen bidez hautetsi eta zerbitziburuen oharrak bildu dira. Tailerren helburua zen, hautetsi zein langileekin euskarak Urruñan duen lekuaz trukatzeari, eta planak bildu behar lituzkeen lehentasunezko orientabideak definitzea:

- Hautetsien tailerra : 23/07/12 : *Zoin leku euskararentzat Urruñan ?*
- Zerbitziburuen tailerra : 23/09/08 : *Euskara gure esku dago*

Elkarte, eragile pribatu eta eskolentzako galdetegia eta buruz buruko bilkurak

Herriko eragile pribatuak galdetegi bidez galdezkatzea erabaki da. Lan sakonagoa eramanen da 2024an, arlo sozio-ekonomikoko eragileekin.



3

Urruñako bi haurtzaindegik euskarazko harrera eskaintzen dute Elkargoko LEHA labelaren baitako C eremuan (Ohantzea ttiki eta Kimua). Ohantzea aldiz, labelizazioaren bidean da.


6

Urruñako 6 eskolek euskarazko irakaskuntza proposatzen dute. Hiri barneko eta *Immaculée* eskolako haur hezkuntzan murgiltzea proposatzen da eta murgiltze bidezko bi eskola dira: Ikastola eta Erlaitza

72%

Haurren %72ak euskaraz ikasten du Urruñan.

Sail elebidun edo murgiltze sailean eskolatze tasa eskolako 2023ko sartzea





9

gaztek 2023ko uztaileko euskarazko egonaldian parte hartu dute Bidarrain.

21


familiak UDA LEKUren hautua egin dute 2023ko urtean eta Udan

50


leku dira Tipi Tapak urtean 4 astez irekitzen duen euskarazko aisialdi gunean



ELKARTEAK



Galdetegiari erantzun dioten elkarten jarduerak



Elkartek egiten duten euskararen erabilera ehunekotan



ELKARTEEK IDENTIFIKATU BEHARRAK ETA OHARRAK

1

Euskara plazara: Arlo guzietan euskararen presentzia bultzatzea eta bermatzea. Herriko etxeak eskolekin dituen harremanak eta proposatzen dizkien jarduerak euskaraz izan daitezen galdetzen dute.

2

Kolaborazioa: Euskaraz jarduerak proposatzen dituzten elkarteekin lan egitea, proiektu komunak zabalduz.

3

Euskara eta kultura: Euskal kulturaren eta hizkuntzaren inguruan ekitaldi eta ikusgarri gehiago antolatzea, euskararen lekua, bidezkoasuna eta ospea bermatzeko gure herrian. Ekintza horiek Urruñako auzo desberdinetan aldizkatuz antola daitezke: Gau beltza, Olentzero, Korrika, Euskaraldia, Kontzertuak, antzerkiak...

Urtean zehar euskal kulturari begira programazio bat eskaintzea.

Euskarazko **ekitaldi moderno/garaikide** gehiago antolatzea (haur eta gazteentzat ere), hizkuntzaren irudia aldatzeko.

4

Euskara erabiltzen ez duten **elkarteei** euskarri elebidunak erabil ditzaten, laguntza eskaintzea.

5

Euskararen inguruko **gertakari nagusi bat antolatzea.**

6

Dinamika bat eta sareak sortzea: Herriko eragile pribatuekin elkarlana bultzatuz.

7

Arnasguneak : euskara ikusi, entzun eta praktikatzeko momentuak sortzea, jarduera eta gertakari formal eta informalen bidez.

8

Informazioa: Urruñan euskaraz egin daitezkeen jarduerak ezagutaraztea (kirola, kultura, liburutegiko eskaintza...).

HERRIKO ETXEA

Bere 2020-2026 agintaldiko proiektuaren eta Elkargoarekin duen hitzarmenaren baitan, Urruñako Herriko Etxeak euskara herriko ibilmoldean garatzeko erabakia hartu du, hala nola, herritarrenganako zerbitzuetan. Diagnostikoaren bidez, estrategikoenak diren zerbitzuak identifikatu dira, euskara zerbitzuak obratuko duen hizkuntza politikarentzako motore izan daitezkeenak eta indartzekoak direnak.

Bestalde langileen artean %33ak, hau da, heren batek, formakuntza bat segitzeko adostasuna adierazi du.

Zerbitzuetan zonbat euskal hiztun eta haien euskara gaitasuna neurtzeko, AEK erakundeak Europako Hizkuntzen erreferentzia kuadroaren arabera mailaketak egin ditu*.

**Langile guztiak ez dira mailakatu. Mailaketak langileen borondatearen arabera bideratu dira eta herriarentzako estrategikoenak diren zerbitzuak lehenetsiz. Hala ere, mailaketen bidez, langileek herritarrei euskarazko harrera bermatzeko duten gaitasunaz diagnostiko objektibo bat lortzeko aukera eskaintzen du. Mailakatzeen bidez langileek duten euskararen ezagutza eta haien lana betetzeko behar luketen ezagutza neurtzen da, hiru mailen arabera, B1,-B2-C1.*

INDARGUNEAK

Euskararen egoera hizkuntza gaitasunaren arabera zenbakitan:

- Idazkaritza orokorra (%50)
- Komertzioak eta merkatuak (%100)
- Eskolak- ATSEM (%33)
- GEUZ (%18)
- Zerbitzu teknikoak (%53, deklaratioa)
- Euskara (%100)




Garatzekoak diren hizkuntza gaitasunak

Publikoarekin harremanetan diren ondoko zerbitzuetan hizkuntza gaitasunak indartzekoak dira :

- Harrera - Egoera zibilia (%0)
- Eskolak, hala nola jantegiko langileak (%5)
- Kultura, komunikazioa eta elkarte bizitza poloa (%20)
- Ingurumena (%0)
- Hirigintza (%0)
- Herriko polizia (%0)
- Kirola et Gazteria zerbitzua (%7)
- Giza baliabideak (%0)


ITZULPENAK 2023

111 950 hitz



ITZULITAKO DOKUMENTU MOTA

■ Komunikazio euskarriak ■ Araudiak ■ Seinaletika ■ Inprimakiak ■ Gutunak ■ Gomitak



ITZULPEN MOTAK

Zuzenketa
13%



+100 eskari

ITZULPENAK GALDEGITEN DITUZTEN ZERBITZUAK

- Komunikazioa
- Kultura
- Gazte gunea
- Kirol eta gazteria zerbitzua
- GEUZ
- Elkarte bizitza
- Egoera-Zibila
- Ingurumena
- Saltegiak eta merkatua

AITZINAMENDU NABARMENAK ETA MUGA IDENTIFIKATUAK


Indarguneak

- Transmisioaren alorrean, Urruñako 6 eskolek euskarazko eskaintza dute eta 3 haurtzaindegiek euskarazko harrera proposatzen dute.
- Herriko bizian kulturak eta euskarak duten lotura azkarra.
- Elkarrekin eskaini kultura ekitaldi aberatsak.
- Euskarazko eskaintza garatzen duten elkarrekin.
- Eskola pribatuaren euskarazko aisialdi gunea.
- Hizkuntza-paisaia elebiduna
- Euskara zerbitzua: Herriko etxeak euskarari geroz eta toki gehiago eskaintzen dio.
- Euskara ikasteko eta praktikatzeko egiturak eta proiektuak.

Azkartzeko neurriak

- Oraindik burasoen %28ak elebakartasunaren alde egiten du.
- Eskolen eskolatze tasaren arteko desberdintasuna publikoan.
- Euskarazko espazioen garatzea, batez ere, haur eta gazteei zuzendu eskaintzetan (aisia, aisialdi gunea) eta eragile pribatuen jardueretan.
- Euskarazko kultur gertakarien emendaketa.
- Euskararen aldeko dinamika bat sortzeko beharra.
- Elkarrekin elkarlana indartzeko beharra.
- Herriko etxeko euskarazko zerbitzuen eskaintza euskaraz bermatzea.





2. EUSKARA PLANAREN PRINTZIBIOAK, HELBURUAK ETA ARDATZAK



URRUÑAKO HIZKUNTZA POLITIKAREN PRINTZIOAK

Txosten honen bidez Urruñako hizkuntza politikaren kuadro orokorra eta ekintza plana finkatuko dira, herriko etxearen engaiamendua berretsiz. 5 urteko prospektiba bat aurkeztuko da. Noski, ez dugu 5 urtez euskara salbatuko. Hala ere, kalitatezko urrats bat ematea da helburua.

Zeharkakotasuna

Hizkuntza-politikaren erronka denen artean partekatu eta bideratu behar da. Euskara zerbitzuaren ardura baldin bada ere, herriko etxeetako zerbitzu guziak (eta bakoitzaren ordezkari politikoak) baitezpadakoak diren bitartekoak dira, "euskara"-ren dimentsioa barneratu eta integra dezaten, dituzten xedeetan.

Borondatearen printzipioa

Euskararen inguruan adostasuna sortu. Hizkuntza-politika publikoak urgentziazko egoera bati erantzuten dio, ondorioz, gainbehera geldiarazteko neurri egokiak hartzea beharrezkoa da. Haatik, lege kuadririk ez den neurrian, borondatea eta elkarren arteko adostasuna dira nagusitzen.

ikuspegi orokorra

Euskara denen eskura izan behar da, denek ikusteko gisan eta denei zuzentzeko gisan. Hizkuntza-politikak herritar guziak konduan hartzen ditu eta ez zaio soilik publiko konkretu bati zuzentzen, hots, euskaldunei, euskara ikasten ari diren hiztunei edota hizkuntzaren alde agertzen diren eragileei, ez eta arlo konkretu bakar batean mugatzen.

Epe ertain eta luzerako ikusmoldea:

Epe ertaina

Urtero ekintza plan bat aurkeztea proposatzen da, beti ere norabide orokorrarekin bat eginez.

Epe luzeko proiektzioa

2024-2028 garairako aurreikusi ekintzen emaitzak ez dira denak berehalakoak izanen. Ondorioz, euskararen biziberritzeko epe luzerako perspektiba baten arabera helburuak definitu behar dira.

3 dimentsiotako ekintza

Barneko mailan: Euskara bere neurri publikoan eta zeharka integratzea.

Kanpoko mailan: Eragileak lagundu eta bultzatu hizkuntzaren presentzia eta erabilpen desmartxa batean.

Maila orokorrean: Elkargoaren dispositiboak herriaren mailan deklinatu eta lurralde/mugazgandiko harremanak lotu

URRUÑAKO HIZKUNTZA POLITIKAREN HELBURUAK

EUSKARA PLAZARA



Proiektu honen ardatza dugu **elkarlana eta mutualizazio**, zerbitzuen artekoa, tokiko eragileekin bideratuko dena, Elkargoarekin, EEPekin, eta auzoko zein mugazgandiko herrieekin.

Euskal Elkargoaren hizkuntza politikarekin, EEPren hizkuntza politikaren helburuekin eta *Hizkuntza guttituen eta eskualdeko hizkuntzen tokiko xartarekin* zein tokiko eragile eta hautetsiek identifikatu beharrekin koherentzian, hiztun osoak sortzeko baldintzei begirako helburuak finkatu ditu :

- Herritarren aldektasuna sustatzea.
- Transmisioa sustatzea.
- Erabilera guneak garatzea, herriko etxeko zerbitzuen eskaintzan eta eremu publikoan.

URRUÑAKO EUSKARA PLANAREN PRINTZIOAK

1

Politika orokorra: hizkuntza administrazioaren politika orokorretan integratzea, erabilera espazioak garatzea eta ikusgarri egitea.

2

Herriko etxeko zerbitzuetan euskarazko eskaintza garatzea: herritarrenganako zerbitzuak lehenetsiz, erabilera sozialerako aukerak irekiz eta langileak formatuz.

3

Etorkizuneko erronkari aurre egitea: hiztunen kopurua emendatuz, haur, gazte eta burasoak helburutzat hartuz.

4

Zubiak eraikitzea eta euskararen aldeko giroa sortzea. Hizkuntzaren ospean eta erakargarritasunean eragitea, erdaldunak sentiberatuz, Komunikazioaren eta gertakarien antolaketaren bidez.

5

Euskara plazan eta eremu publikoan zabaltzea: herrian euskararen presentzia zabalduz, ikusgarri eginez eta erabiltzeko espazioak sortuz herriko eragileekin elkarlanean.

6

Dinamikak sortzea eta saretzea: Herriko eragile, lurraldeko herri, elkargo eta mugazgandiko sareetan elikatuz eta dinamikak sortuz.

7

Arnasguneak eskaintzea: euskal hiztunei euskara ikusteko, entzuteko, praktikatzeko momentuak sortuz, jardueren edo gertakarien bidez, molde formalean edo informalean.

JARRAIPENERAKO MOLDEAK



Euskara zerbitzua

Politika publiko horren eramateko, euskara zerbitzu bat sortu da 2022an eta aitzinkondu propioa esleitu zaio, ekintza plan bat obra dezan.

Zuzendaritza orokorrari loturik, bere zeregin nagusiak ondokoak dira:

- Euskararen politika publikoa definitzea, obratzea, eguneratzea eta ebaluatzea.
- Herri mailako euskararen inguruko dinamikak sortzea.
- Zerbitzuek antolatu gertakarietan euskararen presentzia eta erabilera sustatzea.
- Sareak eta partaidetzak sortzea.

Jarraipenerako instantziak

- Hizkuntza-politika misio taldea
- Elkargoko dispositiboen jarraipena egiteko Gidaritza Batzordea

Neurgailuak eta ebaluaketak

Erregulariki ebaluaketak burutuko dira txosten batzuen bidez ekintzen eraginkortasuna, egokitasuna eta eragina neurtzeko gisan. Lan ardatzak hobetzen edo heineratzen lagunduko dute. Adierazle zehatz batzuetan oinarrituko dira (inkesta soziolinguistikoa, galdetegiak, jarraipen taulak..)

Hizkuntza politikaren erronken araberako helburu zehatzak eta neurgarriak finkatuko dira: eskolatze tasa, jarduera kopurua, partaide kopurua, seinaletika, itzulpen kopurua, Elkargoko urte bukaerako bilana., hedabidetan den presentzia...

2025ean, Elkargoarekin hitzarmena berritzeko aukerak aztertuko dira.

EKINTZA PLANA

2024-2028



POLITIKA OROKORRA

10 000 biztanletik gorako herrietan, hizkuntza-politika eraginkor eta ausarta eraman nahi bada, euskara zerbitzu propio baten presentzia ezinbestekoa dela kontuan harturik, Urruñako herriko etxeak bere euskara zerbitzua sortu du 2022an.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- Herriko hizkuntza politika plantan ezartzea eta horren jarraipena egitea. Elkargoak definitu hizkuntza politikarekin eta eskualdeko hizkuntzen tokiko xartarekin koherentzian.
- Euskara administrazioaren politika orokorretan integratzea.
- Herritarrenganako zerbitzuetan eskaintza elebiduna eta erabilera espazioak garatzea.
- Urruña esperimentaziorako herri izatea, eta herri eredugarria bilakatzea.

2024-2028 HELBURUAK

- Herritarrenganako zerbitzuetan eskaintza elebiduna egituratzea, horretarako zerbitzu estrategikoak lehenetsiz, zerbitzu horietan langileen %50a euskaldun izatea helburutzat hartuz eta urte anitzetako formakuntza plan bat proposatuz.
- Komunikazio euskarrietan euskara molde orekatuan integratzea (“Hizkuntzen aniztasuna komunikazio euskarrietan”xarta).
- Hautetsi eta langileei zuzendu euskararen aldeko barne sentiberatze eta informatze dinamikak plantan ezartzea.
- Euskara ikasten ari diren langileek eta langile euskaldunek beren lanean euskara erabil dezaten, barne ekintzak antolatzea.
- Euskararen ospean eragitea.
- Herriko zerbitzuen jardueretan euskararen presentzia edo euskarazko eskaintza plantan ezartzeko laguntza eskaintzea.
- Jarraipenerako eta ebaluaketarako tresnak sortzea.
- Herritarrei begira inkesta soziolinguistikoa bideratzea.

HERRIKO ETXEA ETA GEUZ: ERABILERA PLANA

ZERBITZUETAN EUSKARAZKO ESKAINTZA GARATU

HERRIKO ETXEA ETA GEUZ ERABILERA PLANA

- Herriko etxeko seinaleetan euskara integratzea: seinaleetika orokorra, barne seinaleetika, behin-behineko seinaleetika, eraikinen seinaleetika, karriken, bideen, lotizamenduen izenak...
- Herriko etxearen irudiarekin lotu elementu guzietan euskara integratzea (izenpedura elektronikoak, zigiluak, ibilgailuak...).

EUSKARA JAKIN EUSKARAZKO ZERBITZU BAT PROPOSATZEKO

- Zerbitzu estrategikoak identifikatu dira, hala nola, herritarrekin harremanetan direnak: Harrera, egoera-zibila, idazkaritza orokorra, komunikazioa, kultura, elkarte bizitza, eskolak, GEUZ, kirol eta gazte zerbitzua, aisialdi gunea, saltegiak eta merkatua, ingurumena.
- Langileek beren lana euskaraz betetzeko hizkuntza gaitasuna garatzeko urte anitzetako formakuntza plan bat plantan ezartzea.
- Euskara dakiten langileak seinalatzea.
- Formakuntzan diren langileei/ euskaldunak diren langileei erabilera helburuak finkatzea urteko elkarrizketa egiterakoan.
- Euskararen erabilpena baloratzea.
- Euskara konduan hartzea langile bat hartzerakoan.
- Ikasten ari diren langileak laguntzea (mintzalagun, euskarazko trukatzeko momentuak antolatu).
- Urruñan euskaraz burutu daitezkeen desmartxa administratiboak ezagutaraztea: familia liburuxka, ezkontza, sortze eta ezkontza opariak...
- Dokumentu elebidunak proposatzea.

HERRIKO ETXEA ETA GEUZ: ERABILERA PLANA

ZERBITZUETAN EUSKARAZKO ESKAINTZA GARATU

EUSKARAREN ALDEKO BARNE DINAMIKA BAT SORTU ETA LANGILEAK INFORMATU

- Hautetsi eta langileentzako sentiberatze/iniziazio tailerrak antolatzea.
- Euskaldunak ez diren langileentzako sentiberatze ekintzak antolatzea.
- Urtean zehar langile euskaldunentzako hitzorduak finkatzea : euskara kafea, ateraldiak...
- Herriko etxea integratzen duten langile berriak informatzea *ongi etorri* kit bat eskainiz.

KOMUNIKAZIOA

Komunikazio euskarriak

- Urruñarrei, herriko elkarteei eta eragile sozio-ekonomikoei zuzendu komunikazio euskarri orotan euskara erabiltzea (argitalpenak, newsletter, erabakiak, inprimakiak, dosierrak, herriko aldizkaria, gutunak...).
- Hitz hartze ofizialeetan, prentsaurrekoetan eta animazio, estreinaldi eta bestelakoetan, euskararen presentzia bermatzea.
- Euskara molde orekatuan integratzea komunikazio numerikoan (internet, sare sozialak, taula numerikoa...).
- Euskarazko euskarriak sortzea: hiztegitxoak, gidak...

Prentsarekiko harremanak

- Euskal hedabideekiko harremanak euskaraz bermatzea.
- Euskarazko hedabideak sustengatzea.

HERRIKO ETXEA ETA GEUZ: ERABILERA PLANA

ZERBITZUETAN EUSKARAZKO ESKAINTZA GARATU



HERRIKO ETXEAREN BARNE BIZIA

- Kontseiluko eta batzordeetako deialdiak elebitan igortzea.
- Ereduzko dokumentuak elebitan egitea (presentzia fitxak...)
- Langileei zuzendu barne dokumentuak elebitan egitea. (bide gastuak, oporrak, newsletter...).

PARTAIDETZAK

- Elkargoko hizkuntza-politiken zerbitzua
- Herriko etxeko eta GEUZeko zerbitzuak
- Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA)
- Euskararen Erakunde Publikoa (EEP)

LEHEN HAURTZAROA: TRANSMISIOAREN ZUTABEA

HIZTUN OSOAK ETORKIZUNeko ERRONKA

“Lehen haurtzaroa, familiarekin eta eskolarekin, transmisio prozesuraren gakoa da. Eleaniztasun goiztiarra laguntzeaz gain, haurrari euskarazko irakaskuntza batetan sartzeko ingurumen baikor bat eskaintzen diote. .”

Euskara jalgi hadi plazara, elkargoaren hizkuntza politika proiektua 2018/06/23

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- Haurtzaindegietan eta familien harrera laguntzeko egituretan euskarazko eskaintza garatzea eta egituratzea.

2024-2028 HELBURUAK

- Euskarazko harrera eskaintzeko hautua egin duten haurtzaindegiak laguntzea eta eskaintza ikusgarri egitea.

EKINTZAK

- Elkargoak, Ohantzea, Ohantzea Ttiki eta Kimua haurtzaindegietan plantan ezarri LEHA dispositiboaren jarraipena egitea.
- Eskaintza agerian ezartzea.
- Burasoei begirako informazio eta sentiberatze ekintzak antolatzea: tailerrak, mahai-inguruak, hitzaldiak (elebitasun goiztiarraren abantailak...).
- Lehen haurtzaroaren euskarazko astearen kariatara eta elkargoak antolatzen duen Kalakaño festibalaren kariatara euskarazko ekintzak proposatzea.
- Euskarriak sortzea eta hezkuntza materiala eskuragarri ematea.
- Burasoei zuzendu *Ongi etorri* kit bat proposatzea.
- Elkargoak Baionako herriko etxearen bidez eskaintzen duen sortze pak-a ezagutaraztea.
- Etxeko haurtzainak, harrera kolektiboko egiturentzat eta egitura horien burasoentzat antolatzen diren gertakarietara gomitatzea.
- Gainerateko haurtzaindegiei LEHA dispositiboa aurkeztea.

PARTAIDETZAK

- Elkargoko hizkuntza-politiken zerbitzua
- GEUZeko burasotasunaren zerbitzua
- Haurtzaindegiak
- Lehen haurtzaroko eragileak
- EEP

IRAKASKUNTZA: TRANSMISIO GUNEA

HIZTUN OSOAK ETORKIZUNeko ERRONKA

Transmisioa eskolaren bidez egiten da nagusiki. Ama eskola eta lehen mailari dagokionez, herriak du eskumena”.

Euskara jalgi hadi plazara, l'euskara rayonne sur nos places, Elkargoko hizkuntza politika proiektua, 2018/06/23

Urruñan eskola guziek sare elebiduna edo murgiltzea proposatzen dute. Ikasleen %72ak euskaraz ikasten du 2023ko sartzean.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- Urruñako eskoletan euskaraz ikasten duen haurren kopurua emendatzea.
- Euskararen aldeko dinamika sortzea.
- Haurrek hizkuntzarekin harremanetan duten denbora luzatzea eta jostagarriagoa egitea mediazio ekintzen bidez edo eskolaldiaren inguruko jardueren bidez.

2024-2028 HELBURUAK

- Familiak euskararen hautua egin dezaten sentiberatzea.
- Eskolako ibilbidean jarraipen tasa hobetzea (eskola-kolegioa).
- Haurrak euskara erabiltzera motibatzea.

EKINTZAK

- Burasoei begirako informazio eta sentiberatze ekintzak antolatzea: tailerrak, mahai-inguruak, hitzaldiak, buraso iritxi berrientzako tailerrak, 5.eko haurren burasoei zuzendu mahai-inguruak...
- Eskolaldiaren inguruko euskarazko jarduerak garatzea.
- Euskarazko mediazio ekintzak garatzea.
- Euskarazko hitzorduak antolatzea.
- Auzoko herrietan gertatzen diren euskararen inguruko gertakarietan parte hartzea.
- Eskolak burasoei zuzendu euskarriak sortzea.
- Eskolen arteko topaketa bat antolatzea.
- Eskoletan ari diren herriko etxeetako langileak euskalduntzea.
- Eskolak EEPren proiektu-deialdietan aurkeztera laguntzea.
- Eskolen ingurumena euskalduntzen lagundu

PARTAIDETZAK

- Kultura, kirola, gazteria zerbitzuak, aisialdi gunea
- Uda Leku, Plazara, Eusko Ikaskuntza...
- Ecoles
- EEP

AISIALDIA: ERABILERA GUNE JOSTAGARRIA

HIZTUN OSOAK ETORKIZUNENKORRONKA

“Euskara dakiten gazte gehienek eskolan soilik ikasten eta baliatzen dute. Haatik, aisialdi jarduerak, euskara ikasteko lagungarriak dira, haur eta gazteek, euskararekin harremanetan duten denbora luzatzen baita eta hizkuntzari ospea ematen baitio, erabiltzeko motibazioan eraginez”

Euskara jalgi hadi plazara, l'euskara rayonne sur nos places, Elkargoko hizkuntza politika proiektua, 2018/06/23

Urruñan elkarteek eta zerbitzuek kirol eta kultur jarduerak proposatzen dituzte. Hautetsiek kontzertazioan lehenetsi publikoa eta arloa da.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- Herriko etxeko eta elkarten aisialdi eskaintzan euskarazko jarduerak egituratzea eta garatzea.

2024-2028 HELBURUAK

- Herriko etxeko aisialdi gunean, eskolaldiaren inguruko jardueretan eta kirol zerbitzuan euskarazko harrera garatzea
- Herrian eta auzoko herrietan atzematen den euskarazko aisialdi eskaintza agerian ezartzea.
- *Uda Lekuren* eskaintza sostengatzea.

EKINTZAK

- Herriko aisialdi gunea Elkargoko *Euskaraz Josta* dispositiboan sartzeara.
- Tipi-Tapa aisialdi gunea *Euskaraz Josta* dispositiboan sartzeara errextea
- Asteazkenetako harreraren euskarazko jarduerak garatzea.
- Kirol zerbitzuaren euskarazko eskaintza garatzea, asteazkenetan eta oporretan.
- Burasoei begirako informazioa antolatzea: Euskarazko Aisien gida , HAIGA formakuntzak...
- Euskarazko egonaldiak garatzea: *Mugaldea* egonaldi ibiltaria, *Euskarabentura*, aisialdi guneko eta gazte zerbitzuko egonaldiak.
- Euskara eta euskal kultura ezagutzeko hitzorduak antolatzea: kirol topaketak, aisiak, ateraldiak, aisialdi guneen/ kirol zerbitzuen arteko topaketa .
- Auzoko herrietan edo mugazgaindikoetan gertatzen diren euskararen inguruko gertakarietan parte hartzea .
- Herriko bizian parte hartzea.
- Herriko aisialdi guneen eta elkarten euskarriak euskaratzen laguntzea.
- *Uda Lekuren* forfeta egoki ordaintzea.
- Haurren kontseiluarekin euskararen inguruan lan egitea.

PARTAIDETZAK

- Elkargoko hizkuntza politika zuzendaritza
- Kultura, kirola, gazteria, GEUZeko burasotasun zerbitzua , aisialdi gunea
- UEMA, auzoko eta mugazgaindiko herriak
- Uda leku
- Tipi Tapa
- Plazara, Euskarabentura

ERAGILE PRIBATUAK ETA ERABILERA SOZIALA

EUSKARA EGUNEROKO BIZITZAN

Hizkuntza biziberritu nahi bada, ikasia izan den hizkuntza, erabilia, entzuna, ikusia, izan dadin erabilera espazioak sortzea ezinbestekoa da. Hizkuntza politikak ikuspegi osokoa izateko, herriko eragile pribatuekin elkarlanean aritzea garrantzitsua da.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- Euskararen presentzia garatzea alor estrategikoetan: elkarre nagusiak, haur eta gazteekin ari diren eragileak, saltegiak, zerbitzuak...
- Eragileek politika honekin bat egin dezaten sustatzea.

2024-2028 HELBURUAK

- Euskararen presentzia eta erabilera elkarre baitan garatzera laguntzea.
- Euskararen presentzia eta erabilera artisau, saltzaile eta enpresa munduan garatzea.
- Eragileekin partaidetzan, euskara ardatz duten gertakariak antolatzea.
- Euskara erabiltzeko aukerak sortzea.

EKINTZAK

- Beren egituraren euskararen presentzia eta eskaintza garatu nahi luketen elkarre nagusiekin hitzarmenak egitea.
- Dirulaguntzak ematerakoan, euskararen inguruan egiten duten ahalegina konduan hartzea.
- Eragileentzako tresnak sortzea eta hedatzea: panelak, mahai-azpikoak, lexikoak...
- *Bai Euskarari/Eusko* elkarreek eskain dezaketen laguntza aurkeztea eta bultzatzea.
- Euskarazko harrera eskain dezaketen eragileak identifikatzea eta agerian uztea .
- Jatetxeekin, ostatu, elkarreekin euskararen inguruko gertakari bat antolatzea.
- Komunikazio kanpaina bat antolatzea: *zure saltokian euskaraz!* , *Bestak euskaraz!*
- Bestak antolatzen dituzten komite, eta elkarreekin tailerrak antolatzea.
- Elkarreekin kolaborazioa eta elkarlana bultzatzea euskararen inguruko eta kultur proiektuen inguruan.
- Eragile berrien etorrerak sortuko lituzkeen aukerak aztertzea.

PARTAIDETZA

- Merkatu eta merkataritza zerbitzua
- Elkarre bizitza Zerbitzua
- Komunikazio zerbitzuak
- EEP
- Bai euskarari, Eusko
- UEMA

INFORMATU, SENTIBERATU ETA ARNASTU: EUSKARA ZUBI SORTZAILEA

EUSKARAREN ALDEKO DINAMIKA BAT SORTU

Hizkuntza politikaren bidez, bizitza eremuetan dinamika euskaldunak garatu eta herritarrak informatu eta sentiberatu nahi dira, herritar euskaldunak euskara baliatzera bultzatzeko, euskararen aldeko giro bat sortzeko eta ingurumena atxikitzeko, eta euskaratik urrun sentitzen direnei eskua luzatzeko. Motibapena piztea, indartzea, egonkortzea da helburua, euskararen ikastearen, erabiltzearen eta transmititzearen aldeko dinamika bat sortzeko.

Euskara jalgi hadi plazara, l'euskara rayonne sur nos places, Elkargoko hizkuntza politika proiektua, 2018/06/23

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- Plazeraren gainean oinarritu informazio eta sentsibilizazio estrategia bat definitzea, hizkuntzaren irudi baikor bat zabalduz, urruñarrak euskararengana hurbilarazteko eta eremu publikoan erabilera bultzatzeko.
- Euskal hitzunei zuzendu arnaguneak sortzea.

2024-2028 HELBURUAK

- Informazio eta sentsibilizazio estrategia zehaztea eta obratzea.
- Euskara hutsezko gertakariak eta euskara baliatzeko aukerak sortzea.

EKINTZAK

- Lurralde mailan antolatzen diren gertakariekin bat egitea: Euskararen urtaroa, Euskaraldia, Korrika, helduei zuzendu sartzeko kanpaina, Euskararen nazioarteko eguna, *Mintzalagun*.
- Urruñan euskararen inguruko gertakari bat antolatzea elkarrekin (*adz Mintzalasai*).
- *Ongi etorri* kit bat eskaintza herritar/buraso berrientzat.
- Euskara ikasi nahi duten herritarrentzako beka bat proposatzea.
- Helduek euskara ikasteko aukerak proposatzea : Gau eskola, Bideuska
- Informazio bilkurak antolatzea gai desberdinen inguruan eta publiko desberdinentzat.
- Euskarazko jarduerak eta kultur eskaintza emendatzea: *Elealai...*
- Eskolatzearen inguruko kanpaina antolatzea.
- *Urruña euskaraz bizi den herria*: herri sartzeko seinalea,
- Arnaguneak: euskara hutsezko proposamenak antolatzea urte osoan.
- Euskara zerbitzuak antolatzen dituen inguruko ekintzei buruzko informazioa hedatzea.

PARTAIDETZAK

- Euskaingintza
- Elkarrekin
- Auzoetako herriak
- Mugazgaindiko herriak, UEMA
- Elkargoko hizkuntza politiken zuzendaritza

ELKARLANA ETA MUTUALIZAZIOA EKINTZA PUBLIKOA INDARTZEKO

EKINTZA PUBLIKOA INDARTZEKO ELKARLANA

Urruña ez da hizkuntzaren biziberritzearen alde engaiatzen den herriko etxe bakarra, lurralde mailako erronka da. Urruñak, bestelako partaideen helburu bera du. Haatik, eredugarria izan nahi du, jakintzak, baliabideak auzoko herriekin, instituzioekin, eragileekin partekatuz, mutualizatuz. Politika horren gakoetariko bat baita denen indarrak batzea.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- Auzoko herriekin mutualizaziorako bidea irekitzea.
- Mugazgandiko proiektuetan parte hartzea
- Praktiken inguruko, euskarrien inguruan trukitzea, teknikari eta hautetsien arteko sareetan parte hartuz.

2024-2028 HELBURUAK

- Sareak eta herri kanpoko dinamikak sortzea.
- UEMArekin partaidetza bat plantan ezartzea.
- Partaidetzen jarraipena segurtatzea, Elkargoa, EKE, Eusko ikaskuntza, plazara.

EKINTZAK

- UEMArekin partaidetza formalizatzea: euskara teknikarien sarean sartzea, praktiken partekatzea, udaltop, UEMA eguna...
- Auzoko eta mugazgandiko herri eta instituzioekin esperientzien eta baliabideen mutualizatzea.
- *Mugaldea* proiektuan parte hartzea: Oiartzun, Sara, Bortziriak.
- Indarrean diren teknikarien sareetan parte hartu: Elkargoa, Hego Lapurdiko eremua.

PARTAIDETZAK

- Elkargoko hizkuntza politiken zuzendaritza
- EKE
- Auzoko herriak, mugazgandikoak
- UEMA
- Eusko ikaskuntza
- Plazara

BURURATZEKO

Hizkuntza politika bat plantan ezartzeko epe luzerako ikuspegia beharrezkoa da, agintaldia eta Elkargoarekin den hitzarmenaren iraupena gainditzen duena. Bestalde, Herriko Etxea lurralde mailako erronken aktore bilakatzen da, euskararen biziberritzea hizkuntza komunitate oso baten helburua baita erakunde publikoek eta gizarte zibilak eramana, mugaren bi aldeetan. Ekintza anitz bideratu dira azken bi hamarkadatan, hizkuntzaren apaltzea oztopatzeko eta egoera iraultzeko. Oraindik aski ez bada ere, borondate politiko eta baliabide egokiei esker, duela bi hamarkada ezinezkoa zirudien hizkuntza galera prozesua alderantzikatzen ahal dela agerian gelditu da.

2024-2028 garaiak Urruñan hizkuntza-politika egituratu bat plantan ezartzeko lehen urratsak markatuko ditu, ausartak eta era berean lege kuadro baten baitan garatuko direnak, hautu librearen printzipioan oinarrituz.

Aldaketa politika publiko oro bezala, hizkuntza politika denei zuzentzen zaie. euskaldunei bezainbat (hiztun aktiboak, pasiboak edo ikasten ari direnak), euskaldunak ez direnei ere. Hitzunei euskara eremu publikoan erabiltzeko aukerak eskainiz, belaunaldi gazteei euskararen irakaspena zentzuz jantziz, herritarrei erronkak ulertzeko parada eskainiz, elkarbizitzarako oinarriak finkatzen ditugu.

Bestalde, euskararen aldeko politika publikoak ez dezake osoki helburua lortu ez bada bere ikusgarritasunean eta erabilpenean eragiten. Urruñako euskara planak Urruñarrak bere ekintzaren erdigunean kokatuko ditu, eguneroko biziaren eremuetan eraginez, euskara ikusgarri eta helgarri bilaka dadin.